

§B7

**LEY 11/2017, DE 28 DE
DICIEMBRE, POR LA
QUE SE APRUEBA LA
METODOLOGÍA DE
SEÑALAMIENTO DEL
CUPO DEL PAIS VASCO
PARA EL QUINQUENIO
2017-2021**

**11/2017 LEGEA,
ABENDUAREN 28KOA,
EUSKADIKO KUPOA
ZEHAZTEKO
METODOLOGIA
ONARTZEN DUENA 2017-
2021 BOSTURTERAKO.**

LEY 11/2017, DE 28 DE DICIEMBRE, POR LA QUE SE APRUEBA LA METODOLOGÍA DE SEÑALAMIENTO DEL CUPO DEL PAÍS VASCO PARA EL QUINQUENIO 2017-2021

(BOE nº 316, de 29 de diciembre de 2017)

PREÁMBULO

La Constitución Española, en su disposición adicional primera, declara el amparo y respeto de los derechos históricos de los territorios forales y ordena que la actualización de dicho régimen foral se llevará a cabo, en su caso, en el marco de la propia Constitución y de los Estatutos de Autonomía.

El Estatuto de Autonomía del País Vasco, aprobado por la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, establece, en su artículo 41, apartado 1, que las relaciones de orden tributario entre el Estado y la Comunidad Autónoma del País Vasco se regularán por el sistema tradicional de Concierto Económico, y el apartado 2.d) de dicho artículo dispone que el País Vasco contribuirá al sostenimiento de las cargas generales del Estado mediante la aportación de un cupo global integrado por los correspondientes a cada uno de sus Territorios Históricos.

Finalmente, el apartado 2.e) del citado artículo 41 prevé que una Comisión Mixta procederá al señalamiento de los cupos correspondientes a cada Territorio Histórico y que el cupo global resultante se aprobará por Ley con la periodicidad que se fije en el Concierto Económico.

El Concierto Económico entre el Estado y el País Vasco, aprobado por Ley 12/2002, de 23 de mayo, establece en su artículo 50, apartado uno, que cada cinco años, mediante Ley de las Cortes Generales y previo acuerdo de la Comisión Mixta del Concierto Económico, se procederá a aprobar la metodología de señalamiento del cupo que ha de regir en el quinquenio, conforme a los principios generales establecidos en el Concierto Económico, así como a aprobar el cupo del primer año del quinquenio.

En cumplimiento de estos preceptos, ambas Administraciones, de común acuerdo, han procedido a determinar la metodología de señalamiento del cupo que ha de aplicarse durante el quinquenio 2017-2021 y a fijar el cupo líquido provisional del año 2017, año base del quinquenio, habiendo adoptado la Comisión Mixta del Concierto Económico los correspondientes acuerdos en su reunión de 19 de julio de 2017.

Artículo único. Aprobación de la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021

Se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2017-2021, a la que se

11/2017 LEGEA, ABENDUAREN 28KOA, EUSKADIKO KUPOA ZEHAZTEKO METODOLOGIA ONARTZEN DUENA 2017-2021 BOSTURTERAKO.

(316 zenbakidun BOE, 2017.eko abenduaren 29koa)

HITZAURREA

Espainiako Konstituzioaren lehenengo xedapen gehigarriak adierazten du arau horrek foru-lurraldeetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dituela, eta agintzen du foru-araubide horren eguneratzea, hala badagokio, Konstituzioaren eta autonomia- estatutuen eremuan burutuko dela.

Euskal Herriaren Autonomia Estatutuak –abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onetsia bera– 41. artikulua 1. apartatuan ezartzen du Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko tributu-arloko harremanak tradiziozko Ekonomia Itunaren bidez bideratuko direla; artikulua horren 2.d) apartatuan, berriz, xedatzen da Euskadik Estatuaren zama orokor guztietarako ekarpena egingo duela kupo global baten bidez, zeina lurralde historiko bakoitzari dagokionaz osatuta egongo baita.

Azkenik, 41. artikulua 2.e) apartatuak ezartzen du batzorde misto batek zehaztuko duela lurralde historiko bakoitzari dagokion kupo eta hortik ateratzen den kupo globala lege bidez onetsiko dela Ekonomia Itunean zehaztuko den aldizkakotasunez.

Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunak –maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia bera– 50. artikulua Bat apartatuan ezartzen du ezen bost urtetik behin, Gorte Nagusien lege baten bidez eta aldez aurretik Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak akordioa lortuta, bosturtekoan aginduko duen kupo zehazteko metodologia onartuko dela, Ekonomia Itunean jasotako printzipio orokorrekin bat, eta bosturtekoaren lehenbiziko urteko kupo ere onetsiko dela.

Manu horiek betetzeko, bi administrazioek, elkar hartuta, erabaki dute zer metodologia aplikatuko den 2017-2021 bosturtekoan kupo zehazteko, eta finkatu dute zenbat izango den 2017. urteko –hau da, bosturtekoaren abiaburu-urteko– behin-behineko kupo likidoa; hori guztia, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko uztailearen 19ko bilkuran horretarako beharrezkoak diren erabakiak hartu ondoren.

Artikulu bakarra. Euskadiko kupo zehazteko metodologia onartzea 2017-2021 bosturtekorako.

Lege honen eranskinean jasota dagoen Euskadiko kupo zehazteko metodologia onartzen da 2017-2021

refieren el artículo 50 del Concierto Económico entre el Estado y el País Vasco y el artículo 41.2.e) del Estatuto de Autonomía del País Vasco, que figura como anejo a la presente Ley.

DISPOSICIÓN FINAL ÚNICA. ENTRADA EN VIGOR.

La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial del Estado» y surtirá efectos desde el 1 de enero de 2017.

ANEJO

CAPÍTULO I RÉGIMEN JURÍDICO Y VIGENCIA DE LA METODOLOGÍA

Artículo 1. Régimen jurídico y vigencia de la metodología.

Los Cupos del País Vasco correspondientes a los ejercicios 2017-2021, ambos inclusive, se determinarán por la metodología regulada en los artículos siguientes, normativa que aplica la establecida en la Sección 2.ª del capítulo II del Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por Ley 12/2002.

Artículo 2. Sistemática.

A efectos de lo dispuesto en el artículo anterior se determinará el cupo líquido del año base del quinquenio, que será actualizado para los ejercicios siguientes.

CAPÍTULO II DETERMINACIÓN DEL CUPO LÍQUIDO DEL AÑO BASE

Artículo 3. Determinación del cupo del año base.

El cupo líquido del año base del quinquenio 2017-2021 se determinará por la aplicación del índice de imputación al importe total de las cargas no asumidas por la Comunidad Autónoma y mediante la práctica de los correspondientes ajustes y compensaciones, todo ello en los términos previstos en los artículos siguientes.

Artículo 4. Cargas del Estado no asumidas por la Comunidad Autónoma.

Uno. Se consideran cargas del Estado no asumidas por la Comunidad Autónoma las que correspondan a competencias cuyo ejercicio no haya sido asumido efectivamente por aquélla.

Dos. Para la determinación del importe total de dichas cargas se deducirá del total de gastos del presupuesto del Estado, la asignación presupuestaria íntegra que, a nivel

bosturtekorako –metodologia hori Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren 50. artikuluan eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 41.2.e) artikuluan aipatua dago–.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA. INDARREAN JARTZEA.

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2017ko utarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak.

ERANSKINA

I. KAPITULUA METODOLOGIAREN ARAUBIDE JURIDIKOA ETA INDARRALDIA.

1. artikulua. Metodologiaren araubide juridikoa eta indarraldia.

Hurrengo artikuluetan arautzen den metodologiaren bidez zehaztuko dira 2017-2021 ekitaldietako –bi horiek barne– Euskadiko kupoak. Hain zuzen ere, metodologia honek 12/2002 Legearen bidez onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren II. kapituluaren 2. atalean ezarritako araudia jasotzen du.

2. artikulua. Sistematika.

Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa zehaztuko da, eta, hurrengo ekitaldiei begira, kupo hori eguneratu egingo da.

II. KAPITULUA ABIABURU-URTEKO KUPO LIKIDOA ZEHAZTEA.

3. artikulua. Abiaburu-urteko kupa zehaztea.

2017-2021 bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa zehazteko, Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko zamen zenbateko osoari egozpen-indizea aplikatuko zaio, eta, ondoren, egoki diren doikuntzak eta konpentsazioak egingo dira, hurrengo artikuluetan ezarritako baldintzetan.

4. artikulua. Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko Estatuaren zamak.

Bat. Hauek joko dira Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko Estatuaren zamatzat: Autonomia Erkidegoak egikaritzeko benetan bere gain hartu ez dituen eskumenei dagozkienak.

Bi. Zama horien diru-zenbateko osoa zein den zehazteko, eragiketa hau egingo da: kasuan kasuko errege-dekretuetan finkatutako transferentzien eraginkortasun-

estatal, corresponda a las competencias asumidas por la Comunidad Autónoma, desde la fecha de efectividad de la transferencia fijada en los correspondientes Reales Decretos.

Tres. Entre otras, tendrán el carácter de cargas no asumidas por la Comunidad Autónoma las siguientes:

- a) Las cantidades asignadas en los Presupuestos Generales del Estado a los Fondos de Compensación Interterritorial.
- b) Las transferencias o subvenciones que haga el Estado a favor de entes públicos en la medida en que las competencias desempeñadas por los mismos no estén asumidas por la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- c) Los intereses y cuotas de amortización de las deudas del Estado.

Cuatro. La imputación a los Territorios Históricos de la parte correspondiente por cargas no asumidas se efectuará por aplicación del índice de imputación al que se refiere el artículo 7 siguiente.

Artículo 5. Ajustes.

Uno. Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos 14 y 15 siguientes, las cifras que resulten de la imputación a que se refiere el número cuatro del artículo anterior se ajustarán para perfeccionar la estimación de los ingresos por impuestos directos imputables al País Vasco y al resto del Estado según lo establecido en el artículo 55 del Concerto.

Dos. Las cantidades que resulten de la práctica del ajuste regulado en el número uno anterior constituirán el Cupo de cada Territorio Histórico.

Artículo 6. Compensaciones.

Uno. Del cupo correspondiente a cada Territorio Histórico se restarán por compensación los siguientes conceptos:

- a) La parte imputable de los tributos no concertados.
- b) La parte imputable de los ingresos presupuestarios de naturaleza no tributaria.
- c) La parte imputable del déficit que presenten los Presupuestos Generales del Estado.

Dos. La imputación de los conceptos señalados en el número anterior se efectuará aplicando el índice establecido en el artículo 7 siguiente.

Artículo 7. Índice de imputación.

El índice de imputación al que se refieren los artículos 4 y 6 precedentes, determinado básicamente en función de la renta de los Territorios Históricos en relación con el Estado, es el 6,24 por 100 para el quinquenio en curso.

Artículo 8. Cupo líquido.

Uno. La cantidad que resulte tras la práctica de los ajustes regulados en el artículo 5 y las compensaciones

egunetik Autonomia Erkidegoak bereganatutako eskumenei estatu-mailan dagokien aurrekontu-esleipen osoa kenduko zaio Estatuaren aurrekontuko gastu osoari.

Hiru. Beste batzuen artean, hauek hartuko dira Autonomia Erkidegoak bereganatu gabeko zamatzat:

- a) Lurraldearteko konpentsazio-funtsetarako Estatuaren aurrekontu orokorretan esleitutako kopuruak.
- b) Estatuak ente publikoentzat egindako transferentziak edo ente horiei emandako dirulaguntzak, baldin eta ente horiek dituzten eskumenak ez baditu Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatu.
- c) Estatuaren zorren interesak eta amortizazio-kuotak.

Lau. Bereganatu gabeko zamak lurralde historikoei nola egotziko zaizkien jakiteko, hurrengo 7. artikuluan aipatzen den egozpen-indizea erabili beharko da.

5. artikulua. Doikuntzak.

Bat. Hurrengo 14. eta 15. artikuluetan xedatutakoa ezertan eragotzi gabe, aurreko artikuluaen Lau apartatuan adierazitako egozpenetik ateratzen diren kopuruak doitu egingo dira, Euskadiri eta Estatuako gainerako lurraldeari egotzi beharreko zuzeneko zergen sarreraren zenbatespena hobetzeko, Itunaren 55. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Bi. Aurreko Bat apartatuan araututako doikuntza eginda ateratzen diren zenbatekoak izango dira lurralde historiko bakoitzaren kupoa.

6. artikulua. Konpentsazioak.

Bat. Lurralde historiko bakoitzari dagokion kupotik, konpentsazio gisa kontzeptu hauei dagozkien kenketak egingo dira:

- a) Tributu itundugabeen zati egozgarria.
- b) Aurrekontuko diru-sarrera ez-tributarioen zati egozgarria.
- c) Estatuaren aurrekontu orokorrek izan dezaketen defizitaren zati egozgarria.

Bi. Aurreko apartatuan aipatu diren kontzeptuak egozteko, hurrengo 7. artikuluan ezarrita dagoen indizea erabiliko da.

7. artikulua. Egozpen-indizea.

Aurreko 4. eta 6. artikuluetan aipatzen den egozpen-indizea % 6,24 da bosturteko honetarako; indize hori, funtsean, lurralde historikoetako errenta eta Estatuako errenta erkatuta zehaztu da.

8. artikulua. Kupo likidoa.

Bat. Aurreko 5. artikuluan araututako doikuntzak eta 6. Bat artikuluan araututako konpentsazioak eginda ateratzen

reguladas en el artículo 6.Uno anteriores constituye el cupo líquido del País Vasco correspondiente al ejercicio 2017, año base del quinquenio.

Dicho Cupo líquido, una vez determinado, se minorará en la cantidad resultante de aplicar la Disposición Transitoria Cuarta del Concierto Económico.

CAPÍTULO III DETERMINACIÓN DEL CUPO LÍQUIDO DE LOS AÑOS SIGUIENTES DEL QUINQUENIO Y LIQUIDACIÓN DEFINITIVA DE LOS CUPOS

Artículo 9. Método de determinación.

El cupo líquido correspondiente a los años del quinquenio posteriores al año base se determinará provisionalmente por aplicación de un índice de actualización a dicho concepto.

Artículo 10. Índice de actualización.

El índice de actualización es el cociente entre la previsión de ingresos por tributos concertados, excluidos los tributos cedidos en su totalidad a las Comunidades Autónomas, que figure en los capítulos I y II del Presupuesto de Ingresos del Estado del ejercicio al que se refiera el cupo líquido y los ingresos, debidamente homogeneizados, previstos por el Estado por los mismos conceptos tributarios en el año base del quinquenio.

Artículo 11. Efectos por variación en las competencias asumidas.

Uno. Si durante cualquiera de los años del quinquenio, la Comunidad Autónoma del País Vasco asumiese nuevas competencias cuyo coste anual a nivel estatal hubiese sido incluido dentro de las cargas del Estado que se computaron para la determinación del cupo del año base del quinquenio recogido en el artículo 8, se procederá a calcular el coste total anual a nivel estatal asociado al traspaso en el ejercicio en que éste se produzca, según se deduzca de los Presupuestos Generales del Estado para el referido ejercicio.

En el supuesto de que la efectividad del nuevo traspaso no coincidiese con el 1 de enero del ejercicio, se procederá a prorratear el coste total anual a nivel estatal asociado al traspaso en dicho ejercicio proporcionalmente a la parte del año en que el País Vasco hubiera asumido tales competencias, con efectos exclusivos para la determinación del cupo del ejercicio en que se produzca el traspaso.

La citada reducción proporcional tendrá en cuenta la periodicidad real de los gastos corrientes, así como el efectivo grado de realización de las inversiones del Estado.

Dos. En el caso de producirse la circunstancia señalada en el apartado anterior, se procederá a minorar el cupo líquido del año base del quinquenio en el importe que resulte de aplicar al coste total anual a nivel estatal en el ejercicio en que se produzca el traspaso, dividido por el

den kopurua izango da, zehazki, Euskadik 2017ko ekitaldian –hau da, bosturtekoaren abiaburu-urtean– eman beharreko kupo likidoa.

Behin kupo likidoa zehaztuta dagoenean, haren zenbatekoa gutxitu egingo da, Ekonomia Itunaren laugarren xedapen iragankorra aplikatuz lortzen den zenbatekoa bezainbeste.

III. KAPITULUA BOSTURTEKOAREN ONDORENGO URTEETAKO KUPO LIKIDOA ZEHAZTEA ETA KUPOEN BEHIN BETIKO LIKIDAZIOA

9. artikulua. Zehazte-metodoa.

Bosturtekoaren abiaburu-urtearen ondorengo urteei dagokien kupo likidoa behin-behinean zehazteko, kontzeptu horri eguneratze-indize bat aplikatuko zaio.

10. artikulua. Eguneratze-indizea.

Eguneratze-indizea bi hauen arteko zatidura da: tributu itunduak direla-eta –autonomia-erkidegoei guztiz lagatako tributuak bazter utzita– kupo likidoaren ekitaldiko Estatuaren diru-sarreraren aurrekontuko I. eta II. kapituluetan aurreikusten diren diru-sarrerak eta Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urterako tributu-kontzeptu berberengatik aurreikusita dituen diru-sarrera behar bezala homogeneizatuak.

11. artikulua. Bereganatutako eskumenak aldatzearen ondoreak.

Bat. Bosturteko horretako edozein urtetan Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen berriak bereganatzen baditu eta eskumen horien estatu-mailako urteko kostua Estatuaren zamen barruan sartu bazen bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo –8. artikuluan aipatua– zehazteko, eskualdaketa estatu-mailako urteko kostu osoa kalkulatu da eskualdaketa estatu-mailako ekitaldian, ekitaldi horretako Estatuaren aurrekontu orokorretan ezarritakoaren arabera.

Eskualdaketa berriaren eraginkortasun-eguna ez bada ekitaldi horretako urtarrilaren 1a, ekitaldi horretan eskualdaketa estatu-mailako urteko kostu osoa hainbanatuko da Euskadik eskumenok eskuratu dituen urte-zatiaren arabera, baina horren ondoreak eskualdaketa gertatu den ekitaldiko kupo zehazteko izango dira bakarrik.

Aipatu den murriztapen proportzional horrek gastu arruntak benetan zenbatean behin sortzen diren kontuan izango du, bai eta Estatuaren inbertsioak benetan zenbateraino burutu diren ere.

Bi. Aurreko apartatuan adierazitako kasua gertatuz gero, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa gutxitu egingo da, kopuru hau bezainbeste: eskualdaketa gertatu den ekitaldiko estatu-mailako urteko kostu osoa zati 10. artikuluan araututako eguneratze-indizea eginda lortzen

índice de actualización regulado en el artículo 10, el índice de imputación regulado en el artículo 7.

El cupo líquido del año base del quinquenio, así revisado, será el que se utilice para la determinación del cupo del ejercicio en que se produce el traspaso y de los ejercicios posteriores.

Tres. El mecanismo descrito se aplicará de manera inversa en el caso de que la Comunidad Autónoma del País Vasco dejase de ejercer competencias que tuviera asumidas.

Cuatro. Si durante cualquiera de los años del quinquenio, el Estado se reservara o asumiera nuevos compromisos de financiación derivados de medidas legislativas, de interés general o de acuerdos interinstitucionales, sobre materias cuya ejecución corresponda a las Comunidades Autónomas, se reunirá la Comisión Mixta del Concerto Económico para analizar y determinar la participación financiera que, en su caso, corresponda al País Vasco.

Artículo 12. Liquidación definitiva.

Uno. Los cupos fijados provisionalmente conforme a lo dispuesto en los artículos anteriores se liquidarán definitivamente aplicando el valor real del índice de actualización definido en el artículo 10, que se deduzca de la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado, tanto en el ejercicio a que se refiere el cupo como su homogénea en el año base del quinquenio, al cupo líquido definitivo homogéneo del año base.

Dos. Excepcionalmente, la liquidación definitiva del cupo líquido correspondiente al año base del quinquenio, se efectuará considerando el valor real del índice de actualización, definido en el artículo 10, que se deduzca de la recaudación líquida realmente obtenida por el Estado en el año base del quinquenio, respecto a la previsión homogénea de recaudación para ese mismo ejercicio que figure en el Presupuesto de Ingresos del Estado.

Tres. La recaudación líquida obtenida por el Estado en cada ejercicio será la que se deduzca de la certificación expedida por la Intervención General de la Administración del Estado a estos efectos, computándose como tal la obtenida en el año al que se refiere la certificación cualquiera que sea el del devengo.

Cuatro. La liquidación definitiva se efectuará en el mes de mayo del ejercicio siguiente al que se refieren el cupo y la compensación objeto de la misma y las diferencias que origine con el cupo líquido fijado provisionalmente para el citado ejercicio se regularizarán en el citado mes de mayo, computándose, en su caso, con el ingreso a efectuar previsto en el artículo siguiente, en el citado mes.

CAPÍTULO IV NORMAS COMUNES

Artículo 13. Ingreso del cupo.

La cantidad a ingresar por la Comunidad Autónoma del País Vasco en cada ejercicio se abonará a la Hacienda Pública del Estado en tres plazos iguales, durante los meses de mayo, septiembre y diciembre del mismo.

den zenbatekoari 7. artikuluan araututako egozpen-indizea aplikatuta ateratzen dena.

Berrikuspen hori egin ondoren lortzen den bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa erabiliko da eskualdaketa gertatu den ekitaldiko eta ondorengo ekitaldietako kupo zehazteko.

Hiru. Euskal Autonomia Erkidegoak bereganatuta zuen eskumenen bat egikaritzeari uzten badio, azalduetako mekanismoa kontrako moduan aplikatuko da.

Lau. Bosturteko horretako edozein urtetan Estatuak finantzaketa-konpromiso berriak erreserbatzen edo bereganatzen baditu legegintza-neurrien, interes orokorraren edo erakundearteko akordioen ondorioz, eta konpromiso horiek autonomia-erkidegoek betearazi beharreko gaiei buruzkoak badira, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bilduko da, Euskadiri zer finantza-partaidetza dagokion aztertze eta zehazteko.

12. artikulua. Behin betiko likidazioa.

Bat. Aurreko artikuluetan ezarritakoaren arabera behin-behinean zehazten diren kupoak behin betiko likidatzeko, abiaburu-urteko behin betiko kupo likido homogéneoari 10. artikuluan definitutako eguneratze-indizearen benetako balioa aplikatuko zaio –Estatuak izandako benetako bilketa likidotik ateratzen dena, bai kupoaren ekitaldian bai bosturtekoaren abiaburu-urteko bilketa homogéneoan–.

Bi. Salbuespenez, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa behin betiko likidatzeko, aintzat hartuko da 10. artikuluan definitutako eguneratze-indizearen benetako balioa zenbat den –Estatuak bosturtekoaren abiaburu-urtean izandako benetako bilketa likidotik ateratzen dena– Estatuaren diru-sarreraren aurrekontuan ekitaldi horretarako ezarritako bilketaren aurreikuspen homogéneoarekin alderatuta.

Hiru. Estatuak ekitaldi bakoitzean izandako bilketa likidoa Estatu Administrazioaren Kontu Hartzailtza Nagusiak ondore horietarako emandako ziurtagirian agertzen dena izango da; halakotzat zenbatuko da ziurtagiriaren urtean lortu dena, sortzapen-urtea edozein izanik ere.

Lau. Kupoaren eta konpentsazioaren ondorengo ekitaldiko maiatzean egingo da behin betiko likidazioa; ekitaldi horretarako behin-behinean ezarritako kupo likidoarekin izandako aldeak ere une horretan erregularizatuko dira –maiatzean, alegia–, eta, hala badagokio, hurrengo artikuluan jasotakoaren arabera egin beharreko diru-sarrerarekin batera zenbatuko dira, hil berean.

IV. KAPITULUA ARAU ERKIDEAK

13. artikulua. Kupo ordaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoak ekitaldi bakoitzean ordaindu behar duen kopurua hiru zenbateko berdinetan ordainduko dio Estatu Ogasun Publikoari, ekitaldi bakoitzeko maiatzean, irailean eta abenduan.

Artículo 14. Ajuste por el Impuesto sobre el Valor Añadido.

Uno. A la recaudación real del País Vasco por el Impuesto sobre el Valor Añadido se le añadirán:

- a) El 6,875 por 100 de la recaudación por el Impuesto sobre el Valor Añadido obtenida en las Aduanas.
- b) El 1,110 por 100 de la recaudación real del territorio común dividida por el 94,235 por 100, o de la recaudación real del País Vasco dividida por el 5,765 por 100, según que el porcentaje de recaudación del País Vasco con respecto a la total estatal, excluida la obtenida en las Aduanas, sea superior o inferior respectivamente, al 5,765 por 100.

Dos. La imputación provisional del ajuste anterior y su regularización como definitivo en el ejercicio inmediato siguiente, se efectuará conforme al procedimiento vigente en cada momento aprobado por la Comisión Mixta del Concerto Económico.

Artículo 15. Ajuste por los Impuestos Especiales de Fabricación.

Uno. A la recaudación real del País Vasco por los Impuestos Especiales de Fabricación, sobre Alcohol y Bebidas Derivadas, Productos Intermedios, Cerveza, Hidrocarburos y Labores del Tabaco, se le añadirán:

- a) 1. El 7,130 por 100 de la recaudación por los Impuestos sobre Alcohol y Bebidas Derivadas y sobre Productos Intermedios obtenida en las Aduanas.
2. El 5,198 por 100 de la recaudación real por los Impuestos sobre Alcohol y Bebidas Derivadas y sobre Productos Intermedios del territorio común dividida por el 98,068 por 100, o de la recaudación real del País Vasco por los mismos conceptos tributarios dividida por el 1,932 por 100, según que el porcentaje de recaudación del País Vasco con respecto a la total estatal, excluida la obtenida en las Aduanas, sea superior o inferior respectivamente, al 1,932 por 100.
- b) 1. El 7,130 por 100 de la recaudación por el Impuesto sobre la Cerveza obtenida en las Aduanas.
2. El 5,399 por 100 de la recaudación real por el Impuesto sobre la Cerveza del territorio común dividida por el 98,269 por 100, o de la recaudación real del País Vasco por el mismo concepto tributario dividida por el 1,731 por 100, según que el porcentaje de recaudación del País Vasco con respecto a la total estatal, excluida la obtenida en las Aduanas, sea superior o inferior respectivamente, al 1,731 por 100.

14. artikulua. Balio erantsiaren gaineko zergak eragindako doikuntza.

Bat. Balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta Euskadin izandako benetako bilketari honako hauek gehituko zaizkio:

- a) Balio erantsiaren gaineko zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren % 6,875.
- b) Lurralde erkidean izandako benetako bilketa zati % 94,235 eginda lortzen den kopuruaren % 1,110, edo Euskadin izandako benetako bilketa zati % 5,765 eginda lortzen denaren % 1,110; lehenengo kasua aplikatuko da, baldin eta Euskadiko bilketa Estatuko bilketa osoarekin alderatuta –aduanetan bildutakoa kenduta– % 5,765 baino handiagoa bada, eta bigarrena aplikatuko da, aldiz, ehuneko hori baino txikiagoa bada.

Bi. Aurreko doikuntza behin-behinean egozteko eta hurrengo ekitaldian behin betiko erregularizatzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako prozedura erabiliko da, une bakoitzean indarrean dena.

15. artikulua. Fabrikazio-zerga bereziek eragindako doikuntza.

Bat. Zenbait fabrikazio-zerga berezi direla-eta (alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga, tarteko produktuen gaineko zerga, garagardoaren gaineko zerga, hidrokarburoen gaineko zerga eta tabako-laboreen gaineko zerga) Euskadin izandako benetako bilketari honako hauek gehituko zaizkio:

- a) 1. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga eta tarteko produktuen gaineko zerga direla-eta aduanetan bildutakoaren % 7,130.
2. Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga eta tarteko produktuen gaineko zerga direla-eta lurralde erkidean izandako benetako bilketa zati % 98,068 eginda lortzen den kopuruaren % 5,198, edo Euskadin tributu-kontzeptu berberengatik izandako benetako bilketa zati % 1,932 eginda lortzen denaren % 5,198; lehenengo kasua aplikatuko da, baldin eta Euskadiko bilketa Estatuko bilketa osoarekin alderatuta –aduanetan bildutakoa kenduta– % 1,932 baino handiagoa bada, eta bigarrena aplikatuko da, aldiz, ehuneko hori baino txikiagoa bada.
- b) 1. Garagardoaren gaineko zerga dela-eta adunetan bildutakoaren % 7,130.
2. Garagardoaren gaineko zerga dela-eta lurralde erkidean izandako benetako bilketa zati % 98,269 eginda lortzen den kopuruaren % 5,399, edo Euskadin tributu-kontzeptu berberengatik izandako benetako bilketa zati % 1,731 eginda lortzen denaren % 5,399; lehenengo kasua aplikatuko da, baldin eta Euskadiko bilketa Estatuko bilketa osoarekin alderatuta –aduanetan bildutakoa kenduta– % 1,731 baino handiagoa bada, eta bigarrena aplikatuko da, aldiz, ehuneko hori baino txikiagoa bada.

- c) 1. El 6,560 por 100 de la recaudación por el Impuesto sobre Hidrocarburos obtenida en las Aduanas.
2. Con signo negativo, el 1,700 por 100 de la recaudación real por el Impuesto sobre Hidrocarburos del territorio común, excluida la derivada de la aplicación de los tipos impositivos autonómicos, dividida por el 91,740 por 100, o de la recaudación real del País Vasco por el mismo concepto tributario dividida por el 8,260 por 100, según que el porcentaje de recaudación del País Vasco con respecto a la total estatal, excluida la obtenida en las Aduanas sea superior o inferior respectivamente, al 8,260 por 100.
3. La diferencia entre la recaudación real anual obtenida en territorio común por aplicación de los tipos impositivos autonómicos aprobados por las instituciones competentes del País Vasco y la obtenida en el País Vasco por aplicación de los tipos impositivos autonómicos aprobados por otras Comunidades Autónomas.
- d) La diferencia entre el resultado de aplicar a la recaudación real en el territorio común por el Impuesto sobre las Labores del Tabaco, el porcentaje que corresponda anualmente al valor de las labores suministradas a Expendedurías de Tabaco y Timbre situadas en el País Vasco, sobre el valor de las labores suministradas a dichos establecimientos en el territorio de aplicación de este impuesto, y el resultado de aplicar el complementario a cien del porcentaje anteriormente definido a la recaudación real por el mismo concepto tributario en el País Vasco.
- c) 1. Hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta aduanetan bildutakoaren % 6,560.
2. Zeinu negatiboarekin, hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta lurralde erkidean izandako benetako bilketa –zerga-tasa autonomikoak aplikatetik bildutakoa kenduta– zati % 91,740 eginda lortzen den kopuruaren % 1,700, edo Euskadin tributu-kontzeptu berberagatik izandako benetako bilketa zati % 8,260 eginda lortzen denaren % 1,700; lehenengo kasua aplikatuko da, baldin eta Euskadiko bilketa Estatuko bilketa osoarekin alderatuta –aduanetan bildutakoa kenduta– % 8,260 baino handiagoa bada, eta bigarrena aplikatuko da, aldiz, ehuneko hori baino txikiagoa bada.
3. Bi hauen arteko aldea: batetik, Euskadiko erakunde eskudunek onetsi dituzten zerga-tasa autonomikoak aplikatzearen ondorioz lurralde erkidean izandako urteko benetako zerga-bilketa, eta, bestetik, beste autonomia-erkidego batzuek onetsitako zerga-tasa autonomikoak aplikatzearen ondorioz Euskadin bildutakoa.
- d) Bi hauen arteko aldea: batetik, tabako-laboreen gaineko zerga dela-eta lurralde erkidean izandako benetako bilketari urteko ehuneko jakin bat –hain zuzen ere, Euskadin kokatutako tabako- eta tinbre-saltokiei hornitutako laboreen balioa zati zerga horren aplikazio-lurraldean halako establezimenduei hornitutako laboreen balioa eginda lortzen dena– aplikatuta ateratzen den emaitza, eta, bestetik, tributu-kontzeptu berberagatik Euskadin izandako benetako bilketari lehen aipatutako ehunekoaren ehunera arteko osagarria aplikatetik lortzen dena.

Dos. En el caso de que la recaudación real obtenida por el País Vasco, excluida la derivada del tramo autonómico, difiera, por el Impuesto sobre Hidrocarburos en más del 7 por 100, y por los Impuestos sobre Alcohol y Bebidas Derivadas, Productos Intermedios y Cerveza en más del 10 por 100, de la cifra que resulte de aplicar los índices contenidos en el último inciso de las letras a) 2, b) 2 y c) 2 del apartado Uno de este artículo a la recaudación real del conjunto del Estado por cada uno de los mismos, se corregirán dichos índices para efectuar los ajustes del año en que se produzcan las diferencias citadas.

Dicha corrección se realizará por aplicación del porcentaje de variación, positivo o negativo, que exceda sobre los respectivos límites establecidos en el párrafo anterior a los correspondientes índices contenidos en el último inciso de las letras a) 2, b) 2 y c) 2 del apartado Uno anterior.

Tres. La imputación provisional del ajuste anterior, para cada uno de los Impuestos, y su regularización como definitivo, en el ejercicio inmediato siguiente, se efectuará conforme al procedimiento vigente en cada momento aprobado por la Comisión Mixta del Concierto Económico.

Bi. Tarte autonomikoaren ondoriozko bilketa bazter utzita, Euskadin hidrokarburoen gaineko zerga dela-eta izandako benetako bilketak % 7 baino gehiagoko aldea badu, eta alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga, tarteko produktuen gaineko zerga eta garagardoaren gaineko zerga direla-eta bildutakoak % 10 baino gehiagoko aldea badu, Estatu osoan zerga horietako bakoitzarengatik izandako benetako bilketari artikulua honen Bat apartatuaren a) 2, b) 2 eta c) 2 letren azken tartekian jasotako indizeak aplikatetik ateratzen den kopuruarekin alderatuta, indize horiek zuzendu egingo dira, aldeak gertatu diren urtean beharrezkoak diren doikuntzak egiteko.

Zuzenketa honela egingo da: aurreko paragrafoan ezarritako muga gainetik dagoen aldakuntza-ehuneko positiboa zein negatiboa aplikatuta aurreko Bat apartatuaren a) 2, b) 2 eta c) 2 letren azken tartekian jasotako indizeei.

Hiru. Zerga bakoitzari aurreko doikuntza behin-behinean egozteko eta hurrengo ekitaldian behin betiko erregularizatzeko, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onetsitako prozedura erabiliko da, une bakoitzean indarrean dena.

DISPOSICIÓN ADICIONAL PRIMERA.

Para el quinquenio 2017-2021 se mantiene vigente lo establecido en la Disposición Adicional Primera de la Ley 37/1997, de 4 de agosto.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEGUNDA.

Se aprueba el cupo líquido del País Vasco para el año base del quinquenio 2017-2021 que figura en el Anexo I de esta metodología.

DISPOSICIÓN ADICIONAL TERCERA.

La financiación que corresponda al País Vasco por su participación en el coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional de acuerdo con lo establecido en el Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre, se deducirá por compensación del cupo líquido a pagar en cada ejercicio.

DISPOSICIÓN ADICIONAL CUARTA.

En el caso de que se produjese una reforma en el ordenamiento jurídico tributario del Estado que afectase a la concertación de los tributos, se produjese una alteración en la distribución de las competencias normativas que afecte al ámbito de la imposición indirecta o se crearan nuevas figuras tributarias o pagos a cuenta, se procederá por ambas Administraciones, de común acuerdo, a la pertinente revisión del cupo líquido del año base del quinquenio y del índice de actualización del mismo, en la forma y cuantía que resulte procedente, surtiendo todo ello efectos a partir del año en que se produzca dicha reforma.

Ambas Administraciones acordarán, en su caso, el establecimiento de los ajustes o compensaciones que, dada la naturaleza de la figura tributaria concertada, sean procedentes.

DISPOSICIÓN ADICIONAL QUINTA.

En el caso de que se produjese una reforma del régimen de cesión de tributos del Estado o una modificación sustancial en los Presupuestos Generales del Estado como consecuencia de la reforma del sistema de financiación de las Comunidades Autónomas o de los Entes Locales, se reunirá la Comisión Mixta del Concerto Económico para analizar y determinar, si procede, la revisión del cupo líquido del año base del quinquenio y/o del índice de actualización del mismo, surtiendo en su caso la revisión efectos a partir del año en que se produzca dicha reforma.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SEXTA.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.

2017-2021 bosturtekorako, indarrean jarraituko du abuztuaren 4ko 37/1997 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoak.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Metodologia honen I. eranskinean agertzen den Euskadiko kupo likidoa onesten da 2017-2021 bosturtekoaren abiaburu-urterako.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera lanaren, enpleguaren eta lanbide-heziketaren eremuko programa eta jardura publikoekin lotutako kostuan parte hartzeagatik Euskadiri dagokion finantzaketa konpentsazio gisa kenduko zaio ekitaldi bakoitzean ordaindu behar duen kupo likidoari.

LAUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Baldin eta Estatuaren tributuei buruzko ordenamendu juridikoan erreformaren bat egiten bada eta erreforma horrek tributuek ituntzeari eragiten badio, edo araugintzarako eskumenen banaketa aldatzen bada eta aldaketa horrek zeharkako zergapetzearen eremuari eragiten badio, edo tributu-figura edo konturako ordainketa berriren bat sortzen bada, bi administrazioek, adostasunez, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoa eta haren eguneratze-indizea berrikusiko dituzte, egoki den moduan eta zenbatekoan, eta horrek guztiak erreforma egiten den urtetik aurrera izango ditu ondoreak.

Bi administrazioek erabakiko dute, hala badagokio, zer doikuntza edo konpentsazio ezarri behar den, tributu-figura itunduaren izaera kontuan hartuta.

BOSGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Baldin eta Estatuaren tributuek lagatzeko araubidean erreformaren bat egiten bada, edo Estatuaren aurrekontu orokorretan aldaketa funtsezkoen bat, autonomia-erikidegoak edo toki-erakundeak finantzatzeko sistema erreformatzearen ondorioz, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoa bilduko da, bosturtekoaren abiaburu-urteko kupo likidoaren edo/eta haren eguneratze-indizearen berrikuspena aztertze eta, egoki bada, zehazteko; hala izanez gero, berrikuspenak erreforma egiten den urtetik aurrera izango ditu ondoreak.

SEIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

En el supuesto de que se modifique el actual régimen de fabricación y comercio de labores del tabaco, se procederá por ambas Administraciones, de común acuerdo, a la revisión de la letra d) del artículo 15.Uno.

DISPOSICIÓN ADICIONAL SÉPTIMA.

Excepcionalmente, se declara definitiva la metodología seguida para el señalamiento de los cupos definitivos correspondientes al quinquenio 2012-2016, contenida en la ley 29/2007, de 25 de octubre, por la que se aprueba la metodología de señalamiento del cupo del País Vasco para el quinquenio 2007-2011, en los términos aprobados por la Comisión Mixta del Concierto Económico.

DISPOSICIÓN ADICIONAL OCTAVA.

Exclusivamente para los ejercicios 2017-2021 se aplicará por compensación en el Cupo líquido a pagar por el País Vasco en cada ejercicio, el resultado de la liquidación del quinquenio 2007-2011, del quinquenio 2012-2016 y de los restantes acuerdos adoptados en la Comisión Mixta del Concierto Económico de 17 de mayo de 2017, en los términos acordados en ésta.

DISPOSICIÓN FINAL PRIMERA.

Excepcionalmente, si transcurrido el plazo de vigencia de la presente Ley no se hubiera promulgado una nueva Ley reguladora de la metodología de señalamiento del cupo para los ejercicios siguientes, la metodología recogida en la presente Ley será de aplicación en todos sus términos para el señalamiento provisional de los cupos líquidos y de las compensaciones a que se refieren la Disposición Adicional Primera de la presente metodología y la Disposición Transitoria Cuarta del Concierto Económico en el ejercicio 2022 y siguientes.

Los cupos y compensaciones así determinados se sustituirán por los que resulten procedentes de aplicar la Ley que los regule citada en el párrafo anterior, una vez que ésta sea aprobada.

DISPOSICIÓN FINAL SEGUNDA.

Lo dispuesto en la presente metodología se entiende sin perjuicio de la normativa contenida en las disposiciones adicionales, transitorias y finales del Concierto Económico con el País Vasco, que permanecen vigentes en la medida en que sean de aplicación en sus propios términos.

Egungo tabako-laboreen fabrikazio- eta merkataritza-arabidea aldatuz gero, bi administrazioek, adostasunez, 15.Bat artikulua d) letra berrikusiko dute.

ZAZPIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

Salbuespenez, behin betikotzat jotzen da 2012-2016 bosturtekoari dagozkion behin betiko kupoak zehazteko erabilitako metodologia, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak onartutako baldintzetan; metodologia hori 2007-2011 bosturtekoarako Euskadiko kupo zehazteko metodologia onesten duen urriaren 25eko 29/2007 Legean jasota dago.

ZORTZIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.

2017-2021 ekitaldietarako bakar-bakarrik, Euskadik ekitaldi bakoitzean ordaindu behar duen kupo likidoan honako hauek aplikatuko dira konpentsazio gisa: 2007-2011 bosturtekoaren likidazioaren emaitza, 2012-2016 bosturtekoarena eta Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak 2017ko maiatzaren 17ko bilkuran hartutako gainerako erabakien ondoriozkoa, Batzordeak ezarritako baldintzetan.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENA.

Salbuespenez, lege honen indarraldia igarota ez bada aldarrikatu beste lege bat hurrengo ekitaldietako kupo zehazteko metodologia arautzen duena, lege honetan bildutako metodologia hau berau aplikatuko da, oso-oso, kupo likidoak eta konpentsazioak –metodologia honen lehenengo xedapen gehigarrian eta Ekonomia Itunaren laugarren xedapen iragankorrean adieraziak– behin-behinean zehazteko 2022ko ekitaldian eta hurrengoetan.

Modu horretan zehazten diren kupoak eta konpentsazioak ordeztu egingo dira gerora; hain zuzen ere, aurreko paragrafoan aipatutako legea onetsitakoan, haren ondorioz egoki direnak jarriko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.

Metodologia honetan xedatzen denak ez du ezertan eragozten Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren xedapen gehigarrietan, iragankorretan eta azken xedapenetan jasotako araudia; izan ere, xedapen horiek indarrean egoten jarraituko dute, haien baldintzak kontuan hartuta aplikatzekoak diren heinean.

ANEXO

CUPO DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO PARA 2017

| | | Miles de euros |
|------------------------------------|---------------|-----------------------|
| PRESUPUESTO DEL ESTADO. GASTOS | | 276.152.254,24 |
| CARGAS ASUMIDAS POR LA C.A.P.V. | | 89.966.505,13 |
| TOTAL CARGAS NO ASUMIDAS | | 186.185.749,11 |
| IMPUTACIÓN DEL ÍNDICE (6,24%) | | 11.617.990,74 |
| COMPENSACIONES Y AJUSTES | | -10.313.455,24 |
| – Por Tributos no Concertados | -539.702,10 | |
| – Por Ingresos no Tributarios | -595.209,88 | |
| – Por Déficit Presupuestario | -8.781.465,54 | |
| – Por Imptos. Directos Concertados | -397.077,72 | |
| CUPO LÍQUIDO | | 1.304.535,50 |
| Compensaciones Álava | | -4.426,53 |
| LÍQUIDO A PAGAR | | 1.300.108,97 |

(*) En este importe no está integrada como Carga Asumida la valoración provisional del coste asociado a los programas y actuaciones públicas en el ámbito del trabajo, el empleo y la formación profesional traspasados al País Vasco por el Real Decreto 1441/2010, de 5 de noviembre (Apartado G.2).

ERANSKINA
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO KUPOA 2017RAKO

| | Mila euro |
|--------------------------------------|------------------|
| ESTATUAREN AURREKONTUA. GASTUAK | 276.152.254,24 |
| EAEK BEREGANATUTAKO ZAMAK | 89.966.505,13 |
| BEREGANATU GABEKO ZAMAK, GUZTIRA | 186.185.749,11 |
| INDIZEAREN EGOZPENA (% 6,24) | 11.617.990,74 |
| KONPENTSAZIOAK ETA DOIKUNTZAK | -10.313.455,24 |
| – Tributu itundugabeak | -539.702,10 |
| – Sarrera ez-tributarioak | -595.209,88 |
| – Aurrekontu-defizita | -8.781.465,54 |
| – Zuzeneko zerga itunduak | -397.077,72 |
| KUPO LIKIDOA | 1.304.535,50 |
| Arabari dagozkion konpentsazioak. | -4.426,53 |
| ORDAINDU BEHARREKO ZENBATEKO LIKIDOA | 1.300.108,97 |

(*) Zenbateko horretan ez dago sartuta bereganatutako zama gisa azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren bidez (G.2 apartatua) Euskadiri eskualdatutako lanaren, enpleguaren eta lanbide-heziketaren eremuko programa eta jarduera publikoekin lotuta dagoen kostuaren behin-behineko zenbatespena.